

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Laugarren Hiruhilekoa 2024

EDUKIA

Testuinguru ekonomikoa.....	4
Lanbiden erregistratutako langabezia.....	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzari.....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

Txosten honek, 2024ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez.


Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzari eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Testuinguru ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) urtez urteko bilakaerak %1,9ko hazkundera erakusten du laugarren hiruhilekoan, 2024 urte osorako aurreikusten den hazkundera %2,1ekoa izanik


Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko Ekonomia %2,1 hazi zen 2024an, aurreko urtean baino sei hamarren gutxiago, baina bere hazkunde potentziala baino pixka bat gehiago oraindik. Halaber, urteko batez besteko balioak bi hamarrenetan gaintzen du Ekonomia Zuzendaritzak urrian egin zuen aurreikuspena. Hazkunderaren tamaina nabarmenagoa da Europako ekonomiek erakusten duten ahultasuna kontuan hartzen bada.

Laugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak urte arteko %1,9ko hazkunde tasa eskuratu zuen, hau da, aurreko bi datuak baino hamarren bat gutxiago bakarrik, eta, beraz, ia urte osoan zehar egonkortasun handiko irudia eman du. Egonkortasun hori hiruhileko arteko aldakuntza tasek hartzen dituzten balioetan ere hauteman da, azken urte eta erdian %0,4 eta %0,6 artekoak izan baitira. Zerbitzuak dira emaitza on horien oinarria.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, "Koiuntura DI-DA batean 2025eko otsaila" txostena.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2024 urtean, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, %3,2koa izan da. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %2,3koa da 2025 urterako. Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2024 urtean, Eurostat-en arabera, %0,7koa izan da. Consensus Forecast-en arabera, 2025erako BPG-aren urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %1,0koa da.




Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2025eko otsaila" txostena.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %0,6 jaitsi da: -1.734 emakume eta +1.118 gizon

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulego-etan erregistratutako langabe kopurua %0,6 jaitsi da 2024ko laugarren hiruhilekoan (-616 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 107.380 pertsonakoa izan da, urte arteko jaitsiera %0,4koa izanik.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua -1.734 pertsonatan jaitsi da emakumezkoen artean eta 1.118 pertsonatan igo gizonzkoen artean. Emakumezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 61.249 pertsonatan kokatu da eta 46.131 pertsonatan gizonzkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 16-24 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-410); ondoren, 25-34 urte bitartean (-225) eta 35-44 urte bitartean (-73). 45-54 eta 55-64 urte bitartean igoerak eman dira: +77 eta +15, hurrenez hurren.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian %1,2ko jaitsiera eman da; jarraian Gipuzkoan (-%0,2). Araba izan da langabe kopuruan igoera izan duen lurralde historiko bakarra (+%1,1).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %4,2 igo da eta bertako langabetu kopurua %1,6 jaitsi da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 20.613 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 86.764 pertsonatan.


Ikasketa-mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen taldea Unibertsitate ikasketak dituztenena izan da (-%6,4); jarraian, Batxilergo ikasketak dituztenak (-%1,4) eta Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (-%0,7). Oinarrizko ikasketak dituztenen taldea izan da igoera izan duen bakarra (+%0,9).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honean, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan igoera handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: enpleguarekin lotutako jarduerak (+1.272); nekazaritza, abeltzaintza (+213); eta zinematografia, bideo eta soinu-jarduerak (+132). Langabetu kopurua jaitsi den jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: hezkuntza (-561); txikizkako merkataritza (-421) eta egoitza establezimenduetan laguntza (-292).

Afiliazioa Gizarte Segurantzian


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.024.511 pertsonatan kokatu da, aurreko hiruhilekoan baino %1,7 gehiago (+16.902 pertsona)

EAEEn 2024ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.024.511 pertsonatan kokatu da: aurreko hiruhilekoan baino %1,7 gehiago (+16.902 pertsona) eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,1 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %51,6 gizonezkoak dira eta %48,4 emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,3); jarraian Gipuzkoan (%33,2) eta Araban (%16,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 10.009 pertsonatan igo da afiliatu kopurua; Gipuzkoan +3.862 eta Araban +3.031.


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: *Manufaktura industria* (%17,1), *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motor-dunen konponketa* (%13,3); eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%11,5). 2024ko laugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Hezkuntza* (+10.702); *Jarduera artistikoak* (+2.204) eta *Ostalaritza* (+1.952). Beste aldetik, jaitsiera handienak hurrengo jardueretan eman dira: *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza* (-1.658); *Administrazio-jarduerak* (-1.193) eta *Etxeak* (-138).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %0,1 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-112 pertsona), kopurua 97.647 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %9,5ekoa da, afiliatu autoktonoena %90,5ekoa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa 7 pertsonatan jaitsi da eta emakumezkoen afiliazioa -107 pertsonatan. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Gipuzkoan %1,7 jaitsi da eta %0,8 Araban. Bizkaian, ostera, %1,3ko igoera eman da.

Kontratutako pertsonak eta kontratuak

Laugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %3,9 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 200.593koa izan da

2024ko laugarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **persona kopurua** guztira 109.148koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %3,9 gutxiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean %5,6ko jaitsiera izan da; emakumezkoen artean -%2,0koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %42,2k Derrigorrezko ikasketak ditu, %24,1ek Batxilergo ikasketak, %18,1ek Unibertsitateko ikasketak eta %15,3k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2024ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko taldea nabarmendu da, %26,5eko pisuarekin; 24 urtetik beherako taldeak jarraitzen dio (%25,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatutako pertsona kopuruaren jaitsierarik handiena 24 urtetik beherako taldean gertatu da (-%19,4); bestalde, 54 urte baino gehiagoko taldea izan da igoerarik handiena izan duena (+12,2%).

Nazionalitateari dagokionez, kontratatutako pertsonen %78,9a bertakoak dira eta %21,1ek atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago). Atzeritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%52,7), Afrika iparraldekoa (%14,3), Europar erkidegokoa eta ez erkidegokoa (%14,2) eta Saharaz hegoaldekoa (%11,3).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 200.593 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1,8 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %5,5 igo da sinatutako kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan-kontratu motaren arabera, joera berdina jarraitzen du: sinatutako kontratuen %22,1 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu gutxiago) eta %77,9 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %36,1 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban eta Bizkaian igoerak eman dira sinatutako kontratu kopuruari dagokionez (+%21,3 eta +%6,1, hurrenez hurren). Gipuzkoan, ostera, %5,3ko jaitsiera eman da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%49,2; 98.597); jarraian Gipuzkoa (%28,2; 56.530) eta Araba (%22,7; 45.466).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, kontratu kopuru gehien izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%13,5); *Ostalaritza* (%13,4) eta *Merkataritza* (%11,4). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea *Manufaktura industria* da (%16,2) eta emakumezkoen artean *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%20,6).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia-tasa %7,1ekoa izan da eta okupazio-tasa %52,2koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **okupazio-tasa**ⁱ %52,2koa izan da (%56,4 gizonezkoen kasuan eta %48,3 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 995.100ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 2.000 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 516.000koa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,1 gutxiago); emakumezkoen kasuan, ostera, landunen kopurua 479.100 pertsonatan kokatu da (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago).

Adinari dagokionez, okupazio-tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,7), 397.700 landun. Bestalde, okupazio-tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%26,7), 54.700 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik txarrena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoena izan da (-%7,6); bestalde, 25-44 eta 45 urte edo gehiagoko taldeek igoerak izan dituzte (+%0,6 y +%0,1, hurrenez hurren).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da okupazio-tasarik handiena izan duena (%53,8), jarraian Araba (%53,5) eta Bizkaia (%50,8). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araba izan da igoera izan duen bakarra (+%1,8); Gipuzkoan eta Bizkaian jaitsierak eman dira (-%0,7 eta -%0,4, hurrenez hurren).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, *Zerbitzuen sektorea* izan da okupatu gehien izan duena (%73,6). Ondoren, *Industria sektorea* (%19,7), *Eraikuntza sektorea* (%5,7) eta *Lehen sektorea* (%1,0).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %80,0k kontratu mugagabe-finkoak izan dituzte EAEn eta %19,1ek aldi baterako kontratuak. **Lanaldi motari** dagokionez, soldatapekoen %81,9k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %17,9k lanaldi partzialekoak.

Laugarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia-tasa** %7,1ean mantentzen da (%6,5 gizonezkoen artean eta %7,7 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 75.600 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 1.100 pertsona gutxiago (gizonezkoen kasuan %6,1 jaitsi da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan %2,8 igo).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%6,2); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%7,4) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%13,2). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua 25-44 urte bitarteko taldean bakarrik jaitsi da (-%6,0); 16-24 eta 45 urte edo gehiagoko taldeetan hurrengoak izan dira igoerak: +%2,0 eta +%1,2, hurrenez hurren.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%5,8), jarraian Araban (%7,0) eta Bizkaian (%7,9). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan jaitsierarik handiena Araban izan da (-%14,3); jarraian Bizkaian (-%1,4). Gipuzkoan, %7,4ko igoera eman da.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %77,4 bertakoak dira; atzeritarrak, beraz, %22,6.

ⁱ Eustatek erabiltzen duen okupazio-tasaren definizioa Eurostaten eta INEren enplegu-tasaren baliokidea da.